

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa



Carlos Taibo

• MADRILGO UNIBERTSITATE
KONPLUTENSEKO IRAKASLEA •

«Dagestango matxinada txetxeniarrak bultzatua da»

Kaukasoan gatazka da nagusi. Orain Dagestanen txanda da.

■ Zer ari da gertatzen funtsean Dagestanen?

Dagestango gatazka Txetxeniakoaren jarraipena da. Txetxeniako botere politikoan baztertuta dagoen erresistentzia talde batek ekintzak inguruko herrialde batera zabaltzea erabaki du, Txetxeniaren bertan protagonismoa izateko helburuarekin.

■ Luze joko al du?

Teorian ez. Gerrillariak zailagoa dute Dagestanen laguntza lortzea, hango gobernuak Moskuren alde baitago. Gainera, Dagestango egoera korapilatsuagoa da etnia asko daudelako, 35 guztira, eta, ez du, beraz, zerikusirik Txetxeniaren homogeneotasunarekin.

■ Zeintzuk dira islamisten helburu nagusiak?

Nire ustez, Kaukaso iparraldean Dagestan, Txetxenia, Ipar Osetia, Inguetia bilduko lituzkeen makroerrepublika bat sortzea.

■ Zer eragin izango luke horrek inguruko herrialdeetan?

Inguru horretako errepublika guztietan Errusiaren aurkako joera dago. Dena den, guztien artean mugimendu bateratua sortzerainoko bidea luzea da, etnia horietako askoren harremanak ez direlako onak.

Ekaitz Agirre
DONOSTIA

...esaera

«Abertzalea izateko Aberriaren askatasuna maitatu beharra dago. Aberriaren askatasuna maitatzeko, esklabutzen duena gorrotatu beharra dago» **Sabino Arana Goiri**

...hizpideak

EAJren bidea eta elkarrizketaren mahaia

■ Xabier Arzalluzek eta Joseba Egibarrek EAJk azken hilabeteetan hartutako bidea berretsi zuten atzo, EBBren abuztuko bileraren ondoko prentsaurrekoan. Iazko abuztutik hona Euskal Herriko egoera nabarmen hobetu dela eta aldaketa horretan EAJk, EARekin eta IUekin batera, eskuhartze garrantzitsua izan duela ziurtatu zuen Arzalluzek. Aurrera begira, gatazka politikoari helzteko elkarrizketa mahai

bat osatzeko garaia iritsi dela uste du EAJk. Espainiako hauteskundeak izan baino lehenago ezin bada handik gutxira izango dela aurreikusitua, eta PPK eta PSE-EEK ez badute parte hartu nahi haiek gabe osatzearen alde agertu da. Horrez gain, EH kale istiluetatik gehiago urruntzea nahiago lukeen arren, itun politika ez dela aldatuko argi utzi zuen Xabier Arzalluzek atzoko agerraldian.

Hondamendia Turkian

■ Mila lagunetik gora hil dira Turkian, herrialde horretan izaniko lurrikararen. Inarrosaldiak 7,8ko indarra izan du Richterraren eskalan —8koa oso lurrikara suntsitzailea izaten da— eta 5.000 zauritu baino gehiago utzi ditu, lehen balantzearen arabera. Turkian sarri izaten dira horrelako fenomeno sismikoak. Iazko ekainean, esaterako, 150 lagun hil ziren Adana hirian izaniko lurrikararen ondorioz.

...pertsonaiak



JEVGENI PRIMAKOV • Errusiako presidente Jeltsinen atsekabegarri, lehen ministro ohiak onartu egin du koalizio zentristako buruzagi izatea.




JAVIER RETEGI • Mondragon Unibertsitateko errektoreak adierazi duenez, humanitate alorreko gaiek ezinbesteko ikasgaia izan behar dute enpresa mundura zuzendutako ikasketan.



JUAN MARI LEKUONA • Oiartzungo kantutegiari buruzko liburua egin du. Apaiz ikasketak egin, unibertsitateko irakasle eta katedraduna da.

...marrazkia



- Pensionistak.

Stefano, italiarra, ez dago jada gurekin. Andaluzia aldera joan da, neska berriak ezagutzera seguru asko, Maryren izena zerrenda luze batean apuntatu eta gero. Atzo bazkalondoan, aspaldiko partez, tertuliatxoan izan genuen etxean Miguel madrildarrak, Sara eta Mary eskoziarrak eta laurok. Euskal Herriko herri mugimenduen inguruko hitzaldi luze bat egiteko baliatzen nuen aukera. Ingeles baldar samarreen baina oso libre aritu nintzen, entzuleen artean euskal herritarrik ez izatea pagotxa handia baita horrelakoetan.

Nahiz eta euskal arazoaren muinera helteko asmorik gabe etorriak izan, Maryk eta Sarak Miguelek baino hobeto ulertzen dute nik horretaz esandakoa. Eskoziarrak direlako izango da. Ez dira nazionalista suharrak baina, Miguelek ez bezala, badakite zer den etxean arrotz sentitzea, eta hori alde handia da.

Abiadura Handiko Trenaz eztabaidatzean, aitzitik, Sara eta Mary

Independentzia

udamina



JUAN LUIS ZABALA

aritu ziren gogorren nire aurka, hots, AHTaren alde. Bidaiatzea iruditzen zaie inon denik zereginik aberatsena, eta bidaiatzea errazten duen edozeren alde daude.

—Gainera, egun batean independente izatera heltzen bazarete, aurrerapen handia izango da AHTa zuen lurraldean izatea —esan zidan Maryk—. Ez al duzu horretan pentsatu?

...datua

1.700 metro koadro ditu Euskalduna jauregiko ekipamendu eszenikoak. Europako bigarren handiena da.

...adierazpena

«2004an hiesaren aurkako txertoa izango da, %50 eraginkorra»

Pablo Milanes
Abeslaria

—Uste dut badela horretan pentsatu duen abertzalerik —erantz nion—. Argi, garbi eta agerian batzuek; ezkutu antzean beste batzuek. Espainiatik eta Frantziatik askatze soilak pauso handia izan liteke gauza askotarako, euskara indartzeko bereziki... akaso, agian... Baina benetan independenteak izango al ginateke Europaren menpe, Espainia eta Frantzia bezalako Euskal Herri batean, haienak baino azpiegitura aurreratuagoak eta haienak baino futbol eta ziklismo selekzio hobekak ditugulako harro?